

.....

IRAGARKIA

Toki Errejimeneko oinarriak arautzen dauzen apirilaren 2ko 1985/7 Legearen 49. artikuloren arabera, jakin arazten da Udal Osoko Bilkurak bere 1992ko Ekainaren 26ko seioan "Babes Zibilar Buruzko Araudia" hasiera batean onartu ebala.

30 eguneko epean espedientea aztertu eta nahi dauanak alegazio zein erreklamaziorik aurkeztu ahal izango dauz. Bat ere aurkeztuko ez balitz behin-betikoz onartua ulertuko litzatekelarik.

.....

BERMEOKO BABES ZIBILEKO BOLUNTARITO TALDEAREN ARAUDIA

(Hasierako Onespena)

I Kapituloa

Xedapen Orokorrak

1. artikuloa Sorrera

Bermeoko Babes Zibileko Boluntarioen Taldea sortzen da. Alkatetzaren menpe egongo da, eta bere kideak Araudi honetan bai eta honen babesean emoten diran Izapidetze eta Zabaltidaztiek ezarritakoaren arabera jaurpidetuko dira.

2. art. Helburuak

Babes Zibileko Boluntarioen konstituzioarekin, helburu bikoitza lortu nahi da:

a) Babes Zibilarl jagokozan gaiekin harremanetan jarri nahi dan jendearen ekimena bideratzea, beren heziketa eta segurtasun pertsonalerako edo eta beharrizan kasuetan besteei laguntza emoteko posibilitateak gehitzeko.

b) Babes Zibileko udal zerbitzuen eraginkortasuna gehitzea, lankidego boluntarioaren laguntzaren bidez, bai eta emerjentzia egoeretan kolaborazio eraginkorra emoteko beharrezkoak diran heziketa eta formazio oinarritzkoarekin.

3. Art. Funtzioak

Orokorki, Babes Zibileko Boluntarioen funtzio bezala ondorengoak ezartzen dira:

a) Pertsona edo ondasunei kalteak eragin daikezan arriskuak gitxitu eta aurrikustera zuzenduta dagozan lanetan parte hartzea, bai eta sokorro, kaltetuen laguntza edo atentzioan, eta istripu, katastrofe edo kalamitate publikoko kasuetan.

b) Babes Zibileko boluntarioak ez izanik siniestro larri, katastrofe edo kalamitateetan beren laguntza emon nahi dabenen iharduera koordinatzea, beharrezkoa danean.

4. art. Administrazioarekiko Harremana

Bermeoko Udalarekin Babes Zibileko Boluntarioek duten harremana, dohainezko eta interes gabeko zerbitzu prestakuntza bezala ulertuko da. Giza, solidaritate eta borondate oneko sentimenduetan oinarritzen da, eta ez dauka inolako jan kontrato izaerarik, ez eta administrazio edo juridikorik, ezin izango daualarik bide emon horrelako erlazioari.

Zentzu honetan, Boluntario Taldean sartzeko inskripzioa eskatzeak esan nahi dau interesdunak modu oso eta formalean artikulua honetan ezarritakoa onartu beharko dauala.

5. art. Baldintzak

Babes Zibileko Boluntario izateko, ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- a) 18 urtetik gora izatea.
- b) Bermeon bizitzea.
- c) Ezartzen diran frogak gainditzea.

6. art.

Boluntario izan nahi dabena horrela inskribitu beharko dira herriko Udaletxeko Erregistro Orokorrean, idatzitako eskari bidez, bere funtzioak betetzean lege eta araudi ezarpenak betetzen konprometuz, eta Araudi honetan ezarritakoa guztira onartuz.

7. art. Lankideak

Aurreko artikuluan ezarritakoaz gain, Babes Zibileko Boluntario Taldean sartu ahal izango dira, boluntario lankide modura, egoera berezietan, eta tekniko lankide bezala, egoera berezietan, edo kontseilaritza, heziketa, laguntza tekniko edo antzerako lan zehatzetan, beren esperientzia edo ahalmenagatik helburuetarako kooperazio zehatza emon dezaketen pertsonak.

II Kapituloa

Antolaketa

8. art. Organigrama

Babes Zibileko Boluntario Taldea, Bermeoko Udaleko Alkatetza Lehendakaritzara atxekita egongo da. Bere antolaketa, daukazan efektiboen funtzioan jarriko da, artikulua honetan ezartzen diran erizpideen arabera, eta 1 Eranskinean aipatutako Organigramaren adostasunez egituratuko da. Jerarkoko ondoko hauek osatzen dabe: Alkatea, Zinegotzi ordezkaria, Babes Zibileko udal Batza, Talde operatiboen Koordinadore Orokorra eta Tekniko Lankideak.

9. art. Alkatea

Bermeoko Udaleko Alkate Udalburuak, Babes Zibileko Udal Zerbitzuen agintaritzara izango dau, horren funtzionamendu egokirako beharrezkoak diran erabakiak hartuko dauzalarik.

10. art. Zinegotzi ordezkaria

Babes Zibileko zinegotzi ordezkariak Alkatetzak emoten deutsozan funtzio guztiak hartuko dauz. Zerbitzuen Udal Batzordeko Lehendakariak izendatuko dau.

11. art. Babes Zibileko Toki Batza

Bermeoko Udalerriko Babes Zibilaren Toki Batza, Babes Zibil arloan Kontsulta eta Parte Hartze Saila da, berari berezkoak jagokozan gaiak ikutzen dauzan eta bere kideek eragindako gai guztien ezagutza, eztabaida eta erizpena jagokolarik.

12. art.

Babes Zibileko Toki Batzaren osaketa eta egozpenak, Araudi honi eransten jakon organigraman zehazten dira, Alkatetzari jagokolarik be re kideak izendatzea, bai eta modu askean aldatzea.

13. art. Koordinatzaile Orokorra

Babes Zibileko Koordinatzaile Orokorrak, Boluntarioen Talde Operatibo desberdinak ikuskatu eta koordinatuko dauz, talde horiek Babes Zibileko Toki Batzarekin duten erlazioa ere arautuko dauzalarik. Izendapena eta aldaketa Zinegotzi Ordezkariari jagoko, Babes Zibileko Toki Batzaren proposamenez.

14. art. Boluntarioen Talde Operatiboak

Babes Zibileko Talde Operatibo bakoitza, Koordinadore Orokorraren proposamenez Babes Zibileko Batzak izendatutako Unitate Arduradun batek osatzen dau. Arduradun horren funtzioak agintzen jakon zuzendaritza eta agintea izango dira, bai eta Unitate bakoitzari egokitzat jotzen dan zenbakian erantsitako Boluntarioena.

Boluntario guztiek, Zerbitzuan dagozanean, araututako jantzia eroango dabe, edo eta Boluntario izaeraren egiaztapena.

15. art.

Talde Operatiboak Babes Zibileko Batzaren onarpenerako jasoko dauz Araudi hau aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diran instrukzioak, bai eta boluntario, gaitasun traga, irakaste eta heziketa zikloa, boluntario eta parte hartzaileen egiaztapen iharduerak arautzeko beharrezkoak diranak.

16. art.

Babes Zibileko Batzak ahalmena dauka Araudi hau berrikusiko, Babes Zibil Sailaren funtzionamendua aztertzeko, eta, ondorioz, beharrezkotzak jotzen diran neurriak hartzeko, Taldearen funtzioen garapenetik ahalik eta emankortasun gehien lortzeko asmoz.

III Kapituloa

Heziketa

17. art.

Heziketa ondorengo helburuak lortzera zuzenduta egongo da:

a) Zerbitzu Publiko honekin ertazionatuta dagozan oinarrizko !zagutzei buruz Babes Zibileko Boluntariei barrí emotea, egokiak liranak hautatzea eta hauek taldean sartzeko heziketa erraztea, jagokon operazio unitatean eraginkortasun baldintzetan.

b) Beti ere Boluntarioen ahalmen eta heziketa mantentzea, eta bere ezagutzen gehitzea eta espezializazioa bultzatzea.

c) Boluntarioen bidez, Bermeoko herritar guztiei autobabes zibilari buruzko ezagutza guztia zabaltzea, batez ere edozein mailatako ikasleei, eta gizarte edo laguntza arlora dedikatutako langilegoari.

18. art.

Aipatutako helburuak lortzeko asmoz, Babes Zibileko Udal Batzak, ondorengo iharduerak beteko dauz:

- a) Boluntarioen irakasketa eta heziketa.
- b) Ikastaro monografiko, Ihardunaldi, praktika eta beste ekintza batzuk antolatu, irakasketa eta heziketa hori hobatzeko, eta ohizko heziketa eta praktika deialdiak betetzeko.
- c) Zerbitzuak hobeto funtzionatu daian beharrezkoak diran Informazio eta agiriak lortu, sailkatu eta artxibatzea.
- d) Babes Zibilari interesatzen jakozan beste erakunde edo pertsonetikiko harremana.
- e) Boluntarioak hezitzeko liburuak argitaratzea, bai eta emerjentziazkoak izan daitekezan arriskuei buruz herritarrei gomendioak emoten eutsien beste argitalpen batzuk egitea, arrisku horren aurrean zelan ihardun behar daben adieraziz.
- f) Ekintza multitudinarioetan segurtasun neurriak hartzea bultzatu.
- g) Udal Emerjentzia Plangintza desberdinak egin eta Udalak onartzeko jasotzea.
- h) Aurreko artikuluan aipatutako helburuak betezeko balio daben beste guztiak.

IV Kapituloa

Eskubide eta beharrak

19 art.

Babes Zibileko Boluntarioak Zerbitzuko bereizgarri eta ekipoak erailetzeko eskubidea dauka, deitua izan dan Ekintza Publikoetan. Parte hartze berezi, siniestro edo kalamitateetan beharrezkoa izango da horiek erabiltzea, identifikatua izateko.

20. art.

Era berean, eskubidea dauka Babes Zibileko Zinegotzi Ordezkaritari eskari, sujerentzia eta erreklamazioak zuzenean egiteko, 20 eguneko epean Babes Zibileko Udal Batzak ez badeutso erantzunik emon bere idaztari.

21. art.

Babes Zibileko Boluntario Taldeko kideak aseguru bat izango dabe, beren ekintzetan istripu bat izanez gero, aseguru horrek jagokozan klausuletan esarritako kalte-ordainak ere hartuko dauzalarik.

22. art.

Babes Zibileko Boluntarioak araututa dagozan beren beharrak modu zehatzean betetzera behartuta dagoz, eskatutako ordu kopurua beteaz, eta Babes Zibileko zerbitzuen esku egonaz. Era berean, interes, disziplina eta solidaritate izpiritu handienarekin, sokorro, laguntza, biktimen erreskate, ebakuazio, zaintze eta pertsona eta ondasunen babesean parte hartzera behartuta dagoz.

23. art.

Boluntarioa ahalik eta arinen aurkeztu beharko da konzentratuko gunean, katastrofe egoeretan edo eskatzen jakonean.

24. art.

Babes Zibileko Boluntario izateak, Araudi honetan ezartzen diran ekintzak egiteko eskubidea emoten dau bakarrik, inoiz ere ezin izango dauzalarik boluntarioak partaide dan Erakunde babestu edo erakundea bera, edo eta bere instalazio eta ekipoak erabili iharduera pertsonal, erlijioso, politiko, sindikal edo elkartzekoetarako.

25. art.

Boluntarioak edo laguntzaileak ezin izango dabe Babes Zibileko kide bezala ihardun Zerbitzu ekintzetatik kanpo. Dana dala, beren jakintza eta esperientzia erabiliz, modu partikularrean, eta herritarren beharrak deituta, ekintzetan parte hartu ahal izango dabe.

26. art.

Boluntaritzan, Babes Zibileko Zerbitzuen parte izateak ez deutso emoten eskubiderik Udalari ordainerazpenik eskatzeko, 16 artikuloren arabera jagokozan kalte-ordain eta laguntzak izan ezik. Beren iharduerak dohainezkoak eta ohorezkoak izango dira, agintzen jaken lana betetzeko derrigorrez egin behar dabezen gastu aurrikusgabeak eta ez-aurrikusgarriak ordainduko jakezalarik.

27. art.

Boluntarioa, emoten jakon materiale eta ekipoa erabilpen egoera hobereanean gordetzera behartuta dago.

V Kapituloa

Sariak eta zigorrak

28. art.

Boluntarioek eginte dabezan aurrikusketa, parte hartze, edo zerbitzu prestakuntza berezien misioetako ekintza meritorio, bikain edo aipagarri guztiak, Babes Zibileko Zinegotzi ordezkariak idatziz edo honen proposamenez Alkateak idatziko dauan errekonozimenduarenkin ordainduko dira.

29. art.

Boluntarioek egiten dabezan hutsak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke, eta Araudi honetan ezarritakoaren arabera zigortuko dira. Ezin izango da zigorrik ezarri aurretik interesdunari audientzi emon barik.

30. art.

Huts arinak izango dira ondorengoak:

a) Agindutako lanak betetzean be re kargura dagozan materialeen mantenu eta kontserbazioa deskuidatzea.

b) Taldeko arduradunek esandakoa ez betetzea, hitzezko edo egitezko tratu txarra ez danean, edo bete behar dan zerbitzuari ez deusonean eragiten.

Huts arinak jakinerazpen batekin edo gehienez hilabete bateko eperako Boluntario izaera kentzearekin zigortuko dira.

31. art.

Huts larriak, ondorengoak izango dira:

a) Babes Zibileko ekipo, materiale edo bereizgarriak erabiltzea.

b) Bere kargupean edo zaintzan dagozan Zerbitzuen ekipo, materiale, ondasun eta agiriak galdu edo hartzea, edo nahita hondatzea.

c) Araudi honetan, eta batel ere 19 artikuluan ezarritakoak ez betetzea edo haustea, ezin izango dabelarik ondorio larririk sortu eta ez diralarik egongo zerrendatuta huts oso larrien artean.

d) Hiru huts larri baino gehiago egitea.

e) Arrazoi justifikatu gabe, zerbitzuko bereizgarriak erabiltzea edo erakustea.

Huts larriak hilabete baino gehiago eta sei hilabete baino gutxiagorako Boluntario izaera kenduz zigortuko dira.

32. art.

Huts larriak izango dira ondorengoak:

a) Pertsona edo ondasunentzat arriskutsuak izan daitezkezan gertaera edo ekintzak ez emotea ezagutzera arduradun edo agintariei.

b) Zerbitzuaren betebeharrak arrazoi justifikatu gabe betetzen iztea.

c) Hitzezko edo egitezko eraso beste Boluntario, Arduradun edo Agintariri, eta bete behar dan lanari eragiten deuten obedientzia eza.

d) Ezarri jakozan eten zigorrak ez betetzea.

e) Ondorioak larritu leikezan ekintza arriskutsu edo arduragabeak, edo eta, parte hartzen daben istripu edo emergentzia egoerak.

f) Zigor ekintza bat egiteagatik sententzia finkoa izatea, zirkulazio istripuen ondorio madura sortutako zigorrak izan ezik.

Huts oso larriak Babes Zibileko Boluntario bezala behin-betikobajarekin zigortuko dira.

33. art.

Boluntario izaeraren Behin-Behineko Baja emongo dabe, ekintza kontutan hartzeak, interesdunaren alde aurretiko eskariarekin, eragiten dauzan arrazoiak aipatuz.

34. art.

Babes Zibileko Boluntario izaera bukatzea, ondorengo kasuetan gertatuko da:

a) Interesdunak behin-betiko baja eskatu dualako.

b) Huts oso larriagatik izandako zigorraren ondorioz.

c) Babes Zibileko Taldearen ekintzetan arazoitu gabe ez agertzeagatik.


d) 18 artikuloren arabera ezarri daitekezan baldintzak ez betetzeagatik.

Kasu honetan, Boluntario edo Kolaboratzaileak, beren agintez aritzen diran Erakundeen agiri eta ondorioak berehala emongo deusoz Babes Zibil Zerbitzuari, honek, interesdunari prestatutako zerbitzuen egiaztapen agiria emon leikiolarik.


Bermeon, 1992ko uztailaren 13an.

ORGANIGRAMA DE PROTECCION CIVIL DE URNEO

ANEXO 1



COMITE DE EMERGENCIA MUNICIPAL



(Núm. 9.491 zkia.)

1994ko apirilaren 29ko Osoko Bilkura

12.- BABES ZIBILARI "HERRI BABESA" IZENA ALDATZEA.

BENITO IBARROLAZA MUNITIZ Jaunak gaiaren azalpen bat egin ondoren Udal Osoko Bilkurak aho batez "BABES ZIBILA" "HERRI BABESA" izenagaitik aldatzea erabaki dau.